

# Espainiar eskualde-arteko Zuzenbidearen berritze prozesuari buruzko hausnarketak: XXI. menderako erronka

UNAI BELINTXON MARTÍN

Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko irakasle kontratatu doktorea  
Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP/UPNA)

FECHA DE RECEPCIÓN / SARRERA-DATA: 6/07/2021

FECHA DE ADMISIÓN / ONARTZE-DATA: 8/11/2021

**Laburpena:** Gure Estatuko sistema juridikoaren berezitasuna aztertzea eta kritikoki baloratzea da ondorengo gogoeta honen helburua. Sistema hori, hain zuzen ere, lege anitzeko antolamendu juridikoko taldean dago kokatuta, eta, bertan, lurraldeetako hainbat legegintza-sistema elkarrekin bizi dira, ondorioz, eskualde-arteko eta tokiarteko barne-gatazkak sortzen direlarik. Hain zuzen ere, XXI. mendean sistema bat ezarri behar den garaiko errealitate sozialera egokitze eskatzen duen ikuskera eta errealitate berezi horri aplikatu beharreko esparru juridiko arau-emaileari buruz hausnartu behar da, indarrean dauden arau konbentzionalak eta EBkoak etengabe aipatuz, eta egungo arau-blokeen etengabeko elkarreaginaren ondorioz, eskualde-arteko harreman juridikoen sorta horretan dagoen problematika beti ere ahaztu gabe.

**Gako-hitzak:** Europar Zuzenbidea, Eskualde-arteko sistema, nazioarteko Zuzenbide pribatua, Barne-legeen arteko gatazkak.

Academia Vasca de Derecho  
Zuzenbidearen Euskal Akademia

Ilustre Colegio Notarial del País Vasco  
Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestua

Ilustre Colegio de la Abogacía de Bizkaia  
Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsua

ISSN: 2173-9102 Boletín *JADO*. Bilbao. Año XVI. N° 29. Enero-Diciembre, 2019-2020-2021, pp. 65-105.  
DL./L.G.: BI-1677-03 *JADO* Aldizkaria. Bilbo. XVI. urtea. 29 zk. 2019-2020-2021, Urtarrila-Abendua, 65-105 or.

**Reflexiones en torno al proceso de renovación del marco plurilegislativo español. Un reto del siglo XXI**

**Resumen:** Esta reflexión tiene por objeto el análisis y valoración crítica de la particularidad de nuestro sistema jurídico estatal ubicado en el grupo de los ordenamientos plurilegislativos en el que conviven y coexisten diferentes sistemas legislativos territoriales con los consecuentes conflictos internos de carácter interregional e interlocal. En efecto, cabe reflexionar sobre el marco jurídico normativo de aplicación a esta particular concepción y realidad que demanda en pleno siglo XXI de un sistema que se adecue a la realidad social del tiempo en el que debe aplicarse teniendo como constante referencia a las normas convencionales y de la UE en vigor, sin obviar la problemática que aflora en ese haz de relaciones jurídicas interregionales como consecuencia de la continua interacción de los bloques normativos presentes.

**Palabras clave:** Derecho europeo, Sistema interregional, Derecho internacional privado, conflictos de leyes internos.

**Considerations about the renewal of the Spanish inter regional Law: a XXI century challenge**

**Abstract:** This reflection aims at analyzing and critical assessment of the particularity of our state legal system. This system, framed in the multi-law legal organization group, coexists with several territorial legislative systems, giving rise to internal conflicts between regions and interlocal. In fact, it is necessary to reflect on the legal framework of application to this particular conception and reality that demands in the 21st century of a system that adapts to the social reality of the time in which it must be applied, having as constant reference to the conventional norms and of the EU in force, without ignoring the problematic that emerges in this beam of interregional legal relations as a consequence of the continuous interaction of the normative blocks present.

**Key words:** European law, Interregional system, Private international law, Conflicts of internal laws.

**AURKIBIDEA:** 1. ATARIKO GOGOETAK. 2. SISTEMEN BATASUNA EDO DUALTASUNA? BARNEKO ETA NAZIOARTEKO LEGEEN GATAZKEI BURUZKO HAINBAT GOGOETA. 3. XXI. MENDEA ETA ESQUALDE-ARTEKO ZUZENBIDEA. SISTEMARIK BA AL DAGO? 4. NAZIOARTEKO HITZARMENEN GATAZKA-SISTEMA. HAINBAT OHAR. 5. EBKO LEGEGILEAREN BARNE-LEGEEN GATAZKETARAKO IR-TENBIDEAK. JARRAITZEKO EREdua? 6. BIBLIOGRAFIA.

## 1. ATARIKO GOGOETAK

Gure Estatuko sistema juridikoa antolamendu komplexuen edo anitzen multzoan kokatzen da. Antolamendu anitz horien ezaugarri dira lurraldeko zenbait lege-sistema elkarrekin bizitzea, baita eskualde arteko eta herri arteko barne-gatazkak ere izatea, guzti horiek, besteak beste, zuzenean ezkontza-krisien erregulazioan eragiten dietelarik<sup>1</sup>. Zuzenbide pribatuaren diziplina berezi eta zirrargarri horri aplikatu beharreko lege-esparrua aztertzea gaur egun arau-konbentzionalak eta EBko arauak etengabe aipatzea exijitzen digu. Era berean, nazioarte mailan eskualdeen-arteko eta tokiarteko harreman juridikoetan agertzen den arazo zehatza identifikatu eta proiektatzen duen azterketa sakona egitea eskatzen du, presentzian dauden arau-blokeek (Europakoak, Estatukoak, autonomikoak, tokikoak eta nazioartekoak) etengabe eta elkarri eragiten baitiete<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> Errealitate juridiko honen inguruan, besteak beste: IRIARTE ÁNGEL, José Luis, «Propiedad y Derecho internacional», *Los conflictos internos en el sistema español*, Fundación registral (Colegio de registradores de la propiedad y mercantiles de España), 2007, 133-163 orr.; ÁLVAREZ RUBIO, Juan José. *Las normas de derecho interregional de la ley 3/1992 de 1 de julio, de derecho civil foral del país vasco*, Oñati, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, 1995.

<sup>2</sup> Zentzu honetan ikus: GONZÁLEZ CAMPOS, Julio Diego. «Diversification, Spécialisation, Flexibilisation et Materialisation des règles de Droit International Privé», *RdesC*, t. 287,

Aztergaiaren eta gogoetaren gaiari dagokionez Eskualde-arteko Zuzenbideak eta gure ordenamendu pribatuak onartzen dituzten hurbilpen ugariak, ezinbestean, alde aurretik zedarritzeko lana eskatzen dute, gure diziplinaren alderdi iuspribatistari erreparatuz, beti ere hurbildu beharko lirakekeen beste batzuk ahaztu gabe, egungo nazioarteko Zuzenbide pribatuaren ezaugarrien arabera erantzun analitikoa eskaintzeko, sektore iradokitzaile batek karakterizatua<sup>3</sup>.

Gogoeta hauen bidez, zenbait gako aztertzeraz bideratuta, etorkizuneko ikuspegi bat eman nahi da. Gako horiek barne-gatazken espainiar barne-erregulazioa modernizatzea eta oraindik egiteko dagoen mekanismo arau-emaile bat sortzea (Espainiako eskualdeen-arteko benetako zuzenbide-sistema bat, alegia) ezinbestekoa dela erakusten dute. Hau da, testuinguru juridiko, ekonomiko eta global berri batean, egungo errealitateari egokiturik dagoen erantzun juridikoak eskaini ahal izateko benetako lege-tresna erabilgarri, beharrezko eta eraginkor bat eraikitzearen beharra agerian geratzen da. Zehazki, familia-eskubideari eta ezkontza-krisien erregulazioan, gaur egun Amsterdamgo Itunean<sup>4</sup> jatorria duen Zuzenbide pribatuaren europeizazioak<sup>5</sup> mugatutako nazioarteko unifor-

---

2002, 156-... orr.; ÁLVAREZ RUBIO, Juan José. *Las Lecciones Jurídicas del Caso Prestige: Prevención, Gestión y Sanción frente a la contaminación marina por hidrocarburos*, Iruña, Aranzadi, 2011, 13-32 orr.

<sup>3</sup> ÁLVAREZ RUBIO, Juan José. *Las Lecciones Jurídicas del Caso Prestige: Prevención, Gestión y Sanción frente a la contaminación marina por hidrocarburos*, Iruña, Aranzadi, 2011, 13-32 orr.

<sup>4</sup> Ikus: CALVO CARAVACA, Alfonso Luis. «El Derecho internacional privado de la Comunidad Europea», *Anales de Derecho*, Murtzia, Murtziako Unibertsitatea, 21 zenb., 2003, 49-69 orr.

<sup>5</sup> Zuzenbide pribatuaren europeizazio inguruan: DE MIGUEL ASENSIO, Pedro Alberto. «Integración Europea y Derecho Internacional Privado», *RDCE*, 2 bol., 1997, 413-445 orr.

metasun-prozesu baten barruan<sup>6</sup>. Prozesu hori Lisboako Ituna<sup>7</sup> indarrean sartu ondoren finkatu eta indartu zen, eta prozesu horren dimentsio edo kanpo-proiektzio bat ere badu<sup>8</sup>. Horrek argi eta garbi erakusten du harreman mota horietan aplikagarri diren legedi ezberdinen arteko koexistentiaren ondorioz Europako lurraldean arazo berezi bat dagoela<sup>9</sup>.

Arau-agertoki horrek abiadura desberdinetan aurrera egiten du, harmonizazio gatazkatsua (askoz ere aurrerratuagoa) edo materialaren arabera, eta horrek zailtasun gehigarriak eragiten ditu, antolamendu juridiko nazional bakoitzean dauden arauen ordezkari edo ordezkari arauen inguruan akordio bat lortzea oso zaila baita<sup>10</sup>.

Espainiako Konstituzioa (EK) gure ordenamendu juridikoko esparru honen oinarritzeko araua da. Eskualde-arteko eta toki-arteko trafiko juridikoaren kasuak hartzen ditu aintzat, eta gaiaren arabera mugatuz gero, sektore jakin batzuetara bideratzen da, hala nola, familia-Zuzenbidea (ezkontza, ezkontza-krisia eta oinordetzak), ondare Zuzenbideko gai

<sup>6</sup> IKUS BORRÁS RODRÍGUEZ, Alegría. «La Comunitarización del Derecho Internacional Privado: pasado, presente y futuro», *Cursos de Derecho Internacional de Vitoria-Gasteiz (2001)*, Gasteiz, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2002, 285-318 orr.

<sup>7</sup> GUZMÁN ZAPATER, Mónica. «Cooperación civil y tratado de Lisboa: ¿Cuánto hay de nuevo?», *La Ley*, 7479 zenb., 2010, 713-... orr.

<sup>8</sup> BELINTXON MARTÍN, Unai. «La necesaria adecuación del Derecho Foral Navarro al proceso de europeización del Derecho internacional privado», *JADO: Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 2015-2016, 14 urtea, 27 zenb., 65-91 orr.

<sup>9</sup> Ildo honetan ikus, FERNÁNDEZ ROZAS, José Carlos. «La comunitarización del Derecho internacional privado y Derecho aplicable a las obligaciones contractuales», *RES*, 140 zenb., 2009, 600-... orr.

<sup>10</sup> Europako Zuzenbide pribatuaren errealitate horri buruz, besteak beste: BELINTXON MARTÍN, Unai. *Derecho europeo y transporte internacional por carretera*, Zizur Txikia, Aranzadi, 2015, 26-... orr.

batzuetara, eta ekonomia-Zuzenbide publikora<sup>11</sup>. Hori esanda, Lisboako Itunak indartutako Europako azpistemaren eragina proiektatu eta garrantzi berezia hartzen du<sup>12</sup>, bere jarduera materialaren eremua gure eskualdeen-arteke Zuzenbide-sisteman batera dauden erakunde zibil berezien esparru nagusira zabaltzen baitu.

Europako Zuzenbidearen oihartzuna eta protagonismoa agerian geratzen dira gure ordenamendu juridikoko iturri-sistemaren aldaketan. Sistema horrek Zuzenbide instituzionala barneratzen du, eta Europako integrazio-prozesuaren printzipioek zuzenean eragiten diete Europa barruko egoera eta harreman guztiei<sup>13</sup>. Europako erakundearen protagonismoa, eta, horri esker, gero eta gehiago zabaltzen ari den prozesua eta eskumen handiagoak eskatzeko joera nabari dira, ondare-Zuzenbide klasikotik kanpoko sektoreetan sartuz, pertsonaren Zuzenbide-eremuan besteak beste<sup>14</sup>.

<sup>11</sup> Ekonomia Zuzenbide publiko material arautzen duten ordenamendu estatal eta erkidegoetako arautegien arteko harreman konplexuen arloan, GONZÁLEZ CAMPOS, Julio Diego, «El marco Constitucional de los conflictos internos en España», HOMMELHOFF, Peter; JAYME, Erik eta MANGOLD, Werner. *Europäischer Binnenmarkt IPR und Rechtsangleichung*, Heidelberg, Müller Jurist.Verlag, 1995, 7-34 orr. Azterlan horrek, ezbairik gabe, funtsezko gakoak eman zituen gai horri buruzko doktrina-garapenerako.

<sup>12</sup> Hala nola, ÁLVAREZ RUBIO, Juan José. «La incidencia del Tratado de Amsterdam en el sistema español de Derecho interregional», *Anales de la Facultad de Derecho*, 18, 2001, 65-78 orr.

<sup>13</sup> Zuzenbide pribatuaren europeizazioari eta integrazioarako nazioarteko Zuzenbidearen Europako eremuko bilakaera juridikoari dagokienez, ikus: DE MIGUEL ASENSIO, Pedro Alberto. *Op. cit.*, 5. nota, 413-445 orr.

<sup>14</sup> Horrela, besteak beste, Europako arau hauek ikus daitezke: Ezkontzaren eta gurasoen erantzukizunaren arloko ebazpen judizialen eskumenari, onarpenari eta betearazpenari buruzko 2003ko azaroaren 27ko Kontseiluaren 2201/2003 Erregelamendua (EE), maiatzaren 29ko 1347/2000 Erregelamendua (EE) indargabetzen duena. (DOUE, 2003ko abenduaren 23a, L 338/1); Elikagaien arloko betebeharren gaineko eskumenari, lege aplikagarriari, ebazpenak onartu eta betetzeari eta lankidetzari buruzko 2008ko abenduaren 18ko, Kontseiluaren, 4/2009 Erregelamendua (EE). (DOUE, 2009ko ur-

Gaur egun, erantzun kontraesankorrak edo dibergenteak ematen dituzten bi ordenamendu juridiko edo gehiago lotzen dituzten harreman juridikoen maiztasunak nazioarteko Zuzenbide pribatuaren izateko arrazoia zehazten du. Munduaren zatiketa politiko eta juridiko konplexuak eta nazioarteko Zuzenbide pribatuak erantzun nahi dien arazo zehatzak planteatzen dituzte, nazioarteko/heterogeneotasun elementuak sartzearen ondorioz kanpoko trafikoa testuinguruan koka daitezkeen harreman pribatuen ugaritzeak<sup>15</sup>.

Hain zuzen ere, zentzu zabalean nazioartekotasun-/heterogeneotasun-elementu bat dagoela interpretatu behar da, ikuskera horren barruan sartu ahal izateko zenbait antolamendu juridiko Estatu berean egoteak eragindako egoera oro. Arau-iturri bateratuen aniztasun horrek aukera eman behar dio legegile nazionalari, autonomikoari, europarrari eta nazioartekoari araudia egiteko beste aukera batzuk aztertze, etorkizunean azterketa egiteko, eta, hartara, Zuzenbide pribatuaren sektore jakin horretan kodetze-ahalegin hori koordinatzen saiatzeak dakarren zeregin konplexua sinplifikatzeko.

---

tarrilaren 10a, L 7/1); Dibortzioari eta banantze judizialari aplikatu beharreko legearen esparruan lankidetzat indartua ezartzen duen 2010eko abenduaren 20ko Kontseiluaren, 1259/2010 Erregelamendua (EB). (DOUE, 2010eko abenduaren 29a, L 343/10); Eskumena, lege aplikagarria, ebazpenak onartu eta betearaztea, mortis causa oinordetzen arloko dokumentu publikoak onartu eta betearaztea eta Europako oinordekotza-ziurtagiria sortzeari buruzko 2012ko uztailaren 4ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 650/2012 Legea (EB). (DOUE, 2012ko uztailaren 27a, L 201/107).

<sup>15</sup> Barneko edo juridikoki homogeneoak diren egoeren eta juridikoki heterogeneoak diren edo kanpoko trafikoa egoeren arteko bereizketari buruz, ikus: GONZÁLEZ CAMPOS, Julio Diego. *Derecho Internacional Privado. Introducción*, Madril, Universidad Autónoma (Xerocopia), 1984, 11 orr.

## 2. SISTEMEN BATASUNA EDO DUALTASUNA? BARNEKO ETA NAZIOARTEKO LEGEEN GATAZKEI BURUZKO HAINBAT GOGOETA

Espainiako Konstituzioa eskualdeen-arteko espainiar Zuzenbidearen sisteman kontuan hartu beharreko arau-erreferentea dugu. Konstituzioko manuek nazioarteko Zuzenbide pribatuaren espainiar sistemaren eraketan duten garrantzia bere nagusitasun hierarkiko eta operatiboak adierazten du. Kontuan izan behar da, alde batetik, legeria zibilaren arloan Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko eskumen-banaketari eta mugaketari dagokionez eragin osoa duela, eta, bestetik, Espainiako nazioarteko Zuzenbide pribatuko sistemaren arauak eta edukia osatzen dituzten balio juridikoak dituela<sup>16</sup>.

Espainiako Konstituzioaren 149.1.8 artikulua, alde batetik, gure ordenamendu juridikoan dauden Zuzenbide zibil foralen edo berezien aniztasuna bermatzen du, eta, bestetik, Autonomia Erkidegoen eta Estatuaren eskumen arauemaileen esparruak mugatzen ditu<sup>17</sup>. Izan ere, aipatu konstituzio-aginduan jasotako klausulak autonomia-erkidegoen autonomia politikoaren bidez foraltasun zibila bermatzen du.

Hain zuzen, Estatuak lege-gatazkak ebazten dituzten arauak emateko duen eskumen-erreserba Espainian batera dauden eskubide zibilen aplikazio harmoniko uniforme eta berdintasunezkoa bermatzeko beharraren ondorio da<sup>18</sup>.

<sup>16</sup> ÁLVAREZ RUBIO, Juan José. «La necesaria reforma del sistema español de Derecho interregional», *Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Vitoria-Gasteiz*, Gasteiz, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 1997, 289-... orr.

<sup>17</sup> Parlamentu autonomikoen Zuzenbide zibila lantzeko dituzten eskumenei buruz, besteak beste, honako hau ikus daiteke: SÁNCHEZ GONZÁLEZ, M<sup>a</sup> Paz. «Competencias de los Parlamentos Autónomos en la elaboración del Derecho del Derecho civil: Estudio del artículo 149.1.8 de la Constitución», ADC, IV, 1986, 1141 orr.

<sup>18</sup> Espainian aldi berean dauden antolamendu zibilen arteko berdintasuna bermatzeko muga eta urriaren 15eko 11/1990 Legearen inguruan, ikus: IRIARTE ÁNGEL, José Luis, «La Ley 11/1990 y su incidencia discriminatoria en el régimen de vecindad civil y en los



149.1.8. Konstituzio-aginduak doktrina-interpretazio dibergenteak eragin ditu arau orokor batez osatutako arau konplexu gisa kalifikatzeari dagokionez, arau orokor horren salbuespen bat, eta, azkenik, salbuespenaren salbuespen batzuek osatutako arau konplexu gisa kalifikatzeari dagokionez. Konplexutasun horrek interpretazio eta zehaztaperen zehatza eskatu du, besteak beste, “*non dauden*” (*allí donde existan*)<sup>19</sup> terminoaren inguruan Zuzenbide zibil forala edo bereziei dagokienez<sup>20</sup>, eskubide horien *garapenaren* nozioaren irismena<sup>21</sup>, eta parekotasun edo berdintasun maila foru-eskubide zibilen eta horien eta Zuzenbide erkidearen artean<sup>22</sup>.

---

conflictos de leyes internos”, CHURRUCA, J., eta GONZÁLEZ, M. (Ed.). *Jornadas Internacionales sobre Instituciones Civiles Vascas*, Bilbo, 1991, 419-425 orr.

<sup>19</sup> MARTÍNEZ DE AGUIRRE ALDAS, Carlos. «Notas para la interpretación del inciso “Allí donde existan” del artículo 159.1.8 de la Constitución Española», *I Congreso de Derecho Vasco: La actualización del Derecho Civil*, Oñati, 1983, 239 orr.

<sup>20</sup> Termino honen inguruan, besteak beste, STC 121/1992, irailaren 28ko sententziaren lehen oinarri juridikoan honela dio: [...] *El amplio enunciado de esta última salvedad («Derechos civiles forales o especiales») permite entender que su remisión alcanza no sólo a aquellos Derechos civiles especiales que habían sido objeto de compilación al tiempo de la entrada en vigor de la Constitución, sino también a normas civiles de ámbito regional o local y de formación consuetudinaria preexistentes a la Constitución [...]*. (RTC/1992/121). Aranzadi.

<sup>21</sup> STC 88/1993, 1993ko martxoaren 12a, RTC/1993/88. Aranzadi.

<sup>22</sup> STC 226/1993, 1993ko uztailearen 8a, bigarren oinarri juridikoak honela dio: [...] *que la Constitución –su art. 149.1.8, específicamente– viene sólo a posibilitar una posición de paridad, si así quiere decirse, entre los Derechos especiales o forales, y entre ellos y el Derecho Civil general o común, por vía de la atribución en exclusiva al Estado de la competencia sobre las «normas para resolver los conflictos de leyes», competencia que en principio asegura –como hemos dicho en la reciente STC 156/1993 (RTC 1993\156)– «un igual ámbito de aplicación de todos los ordenamientos civiles» (fundamento jurídico 3.º). Tan sólo en estos términos, y con las reservas dichas y las salvedades que se harán, cabría hablar de paridad entre ordenamientos civiles, paridad resultante, en definitiva, de la uniformidad de régimen en materia de Derecho interregional privado que la Constitución inequívocamente dispuso.* (RTC\1993\226). Aranzadi.

Europako erakundeek bultzatutako araugintza-harmonizazioari dagokionez<sup>23</sup>, barne-Zuzenbidea bateratzeko prozesu baten beharraz eta eskualde-arteko Espainiako Zuzenbidearen sistemaren aldaketaz hausnartu behar da. Kontuan izan behar da EBren integrazio politiko, ekonomiko, sozial eta juridiko handiagoak, neurri handiagoan edo txikiagoan, bertan dauden ordenamendu juridikoen hurbilketa dakarrela. Horrek ez du esan nahi, nahitaez, berezko tradizio juridikoak dituen sistema juridiko bat baino gehiago dituen estatu batek horri uko egin behar dionik. Hala ere, Europa eraikitzekeo prozesuaren esparruan, zalantzan jarri behar da lege-aniztasuna mugaz gaindiko harremanetarako oztipoa ote den.

Nazioarteko Zuzenbide pribatuko espainiar sistema artikulatzeko egiturak, dimentsioak edo mailak direla eta, legegileek (autonomikoak eta estatukoak) ulermen-maila bat izatea exijitzen dute, errealitate bereziak (barneko edo eskualde-arteko gatazkak, Europa barruko gatazkak eta Europaz kanpoko gatazkak) adierazten dituzten gatazkak direla eta, erantzun juridikoa egokia<sup>24</sup> eta eraginkorra izan dadin<sup>25</sup>.

Gainera, azpimarratu beharra dago Europako legegilea, arau-prozesu bateratzaile horretan, gizarte bakoitzaren eta ordenamendu bakoitzaren tradizioari eta legezko kulturari bereziki lotutako gai klasikoei heltzen

<sup>23</sup> Europako Zuzenbide erkide pribatu baten tratamenduari buruz, bereziki hura lortzeko aurkeztu behar diren baldintzei buruz, ikus daiteke: FERNÁNDEZ ROZAS, José Carlos. «Derecho internacional privado y Derecho comunitario», RIE, bol. 17, 1990, 785-824 orr.

<sup>24</sup> Besteen artean ikus, IRIARTE ÁNGEL, José Luis. «La armonización del Derecho internacional privado por la Unión Europea», *Jado: Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 9 zenb., 2006, 47-73 orr.

<sup>25</sup> Besteak beste, ÁLVAREZ GONZÁLEZ, Santiago. «Remisión a un sistema plurilegislativo. El ejemplo español y algunas tareas por resolver. El ejemplo español y algunas tareas por resolver», *Le Droit à l'épreuve des siècles et des frontières, Mélanges en l'honneur du professeur Bertrand Ancel*, Paris/Madril, LGDJ/Iprolex, 2018, 64-84 orr.; ARENAS GARCÍA, Rafael, «Condicionantes y principios del Derecho interterritorial español actual: desarrollo normativo, fraccionamiento de la jurisdicción y perspectiva europea», AEDIPr, X, 2010, 547-593 orr.

hasi dela, hala nola familia-Zuzenbideari eta oinordetza-Zuzenbideari, ondare-Zuzenbidetik eta obligazio- Zuzenbidetik urrunduz, eta ezkontzaren araubide ekonomikoarekin lotutako gaiak arautzen ditu<sup>26</sup>. Bataretze-prozesuaren luzeraren justifikazioa Europako barne-merkatuaren irekierarekin zerikusia duten arrazoiei dagokie; izan ere, gaur egun, nahiko erraz lekualdatzen dira langileak eta haien familiak European, non, teoriarik behintzat, langileen joan-etorri askea bermatzen baita.

Hain zuzen, Europako Zuzenbidearen joeraren helburua da barne-gatazken eta nazioarteko gatazken hurbilketa eta identifikazio handiagoa lortzea, oztupo nazionalak<sup>27</sup>, askatasun-, segurtasun- eta justizia-eremua<sup>28</sup>, eta pertsonen, merkantzien, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio askerako bermeak kentzearen ondorioz<sup>29</sup>. Kontuan izan behar da Tampereko Kontseilu Europarrean askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparru<sup>30</sup> bat lortu eta lortzeko hartu ziren ondorio garrantzitsuenetarikoa bat

<sup>26</sup> Kontuan izan behar da ezkontzako erregimen ekonomikoa eta oinordekotzak direla foru-ordenamenduetarako edo ordenamendu berezietarako gai nagusietako bi, eta eztabaida eta kezka gehien sortzen dituztela Zuzenbidearen esparru praktikoan, besteak beste, gai honen inguruan: GIMENO GÓMEZ-LAFUENTE, Juan Luis, eta RAJOY BREY, Enrique. *Regímenes económico-matrimoniales y sucesiones. Derecho Común, Foral y Especial*, Zizur Txikia, Aranzadi, 2008.

<sup>27</sup> Nazioarteko merkataritza baldintzatzen duten oztupo nazionalak ezabatzeari eta jarduera komertzialeko nazionalitatearen araberako bereizkeriari dagokionez, ikus daiteke FERNÁNDEZ ROZAS, José Carlos, *Sistema de Derecho económico internacional*, Zizur Txikia, Thomson Civitas, 2010, 55-... orr.

<sup>28</sup> Ikus: FERNÁNDEZ ROZAS, José Carlos. «El Espacio de libertad, seguridad y justicia consolidado por la Constitución Europea», *La Ley*, D-195, 2004, 16 orr.

<sup>29</sup> Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan (TFUE) jasotako bermeak, 2007ko Lisboako Itunak finkatu eta bultzatuak: salgaien zirkulazio librea (28 eta 29 artikulua), eta pertsonen, zerbitzuen, kapitalen eta kokatzeko askatasunen zirkulazio librea (45-66 artikulua).

<sup>30</sup> TFUE 67. art.: (TCE 61. art. eta TUE 29. art. zaharrak): 1) *La Unión constituye un espacio de libertad, seguridad y justicia dentro del respeto de los derechos fundamentales y de los distintos sistemas y tradiciones jurídicas de los Estados miembros.* 2) *Garantizará la ausencia de controles*

hauxe zela: benetako Europako Justizia Esparru batean, ez da beharrezkoa estatu kideetako sistema juridiko eta administratiboen bateraezintasunak edo konplexutasunak pertsoneri eta enpresei beren eskubideak edo eskubideak egikaritzea eragozte<sup>31</sup>.

Hori esanda, nahiz eta gure gatazka-sistemak bi ezaugarri nagusi dituen: nazioarteko gatazkak zein barne-gatazkak arautzea. Gaur egun, Lisboako Tratatu indarrean sartu ondoren EBk sektore jakin batzuetan duen arautegi-eferbeszentzia dela eta, sistema dual batera jo dugu, nazioarteko gatazketan aplika daitezkeen arau gatazkatsuen eta barne-gatazketan aplika daitezkeen arau nazionalen arteko bereizketa garbiarekin.

Atariko Tituluaren IV. kapituluko arauak gatazka-arauaren ikuspegi klasikoa islatzen dute, eta horietako asko zaharkitu egin dira, berrikuspen sakona egitea ezinbestekoa bilakaturik. Beste arau-multzoetan gero eta nazioarteko Hitzarmen eta Europako Erregelamendu gehiago daude. Horiek egungo ikuskeretan eta irtenbide tekniko egokietan oinarritzen dira, joera modernoerantzuz dieten arauak barneratuz, eta gure diziplinak berezko dituen malgutasun, materializazio eta espezializazio fenomenoarekin bat eginez.

---

*de las personas en las fronteras interiores y desarrollará una política común de asilo, inmigración y control de las fronteras exteriores que esté basada en la solidaridad entre Estados miembros y sea equitativa respecto de los nacionales de terceros países. A efectos del presente título, los apátridas se asimilarán a los nacionales de terceros países. 3) La Unión se esforzará por garantizar un nivel elevado de seguridad mediante medidas de prevención de la delincuencia, el racismo y la xenofobia y de lucha en contra de ellos, medidas de coordinación y cooperación entre autoridades policiales y judiciales y otras autoridades competentes, así como mediante el reconocimiento mutuo de las resoluciones judiciales en materia penal y, si es necesario, mediante la aproximación de las legislaciones penales. 4) La Unión facilitará la tutela judicial, garantizando en especial el principio de reconocimiento mutuo de las resoluciones judiciales y extrajudiciales en materia civil.*

<sup>31</sup> Askatasun-, segurtasun- eta justizia-eremu bat pixkanaka ezartzeko beharrari dagokionez, DE MIGUEL ASENSIO, Pedro Alberto. «La evolución del Derecho internacional privado comunitario en el Tratado de Amsterdam», REDI, bol. L, 1 zenb., 1998, 373-376 orr.

### 3. XXI. MENDEA ETA ESKUALDE-ARTEKO ZUZENBIDEA. SISTEMARIK BA AL DAGO?

Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren espainiar sistemak barne-lege-diaren aniztasunaren aurrean dituen gabeziei esker<sup>32</sup>, barne-gatazkak ebazten dituen eskualde-arteko Zuzenbide-sistemarik ez dagoela esan daiteke<sup>33</sup>. Lege anitzeko sistema batean, Espainia kasu, eragile juridikoei Espainiako ordenamendu juridikoan dauden eskubide zibiletatik zein aplikatu daitekeen mugatu edo zehaztea ahalbidetzen dieten mekanismo juridikoak izatea beharrezkoa da.

Konstituzioa eskualdeen-arteko Zuzenbideko Estatu-sistema uniforme bat aukeratzeko orduan argia da. Gatazkak konpontzeko sistemaren unitate hori, sistemaren beste egitura-printzipio batzuekin batera (adibidez, batera dauden zenbait antolamendu zibilen arteko berdintasuna edo parekotasuna), Zuzenbide pribatuko arazoan esparruan eragina duena, Konstituzio Auzitegiak etengabe interpretatu du, eta oinarritzko parametro edo irizpide hermeneutiko batzuk ezarri ditu Estatuko legegilearen mugak zehazteko eta hark barne-gatazka horiek konpontzeko duen ahalmenaz baliatuz haren diskrezionaltasun-maila zehazteko<sup>34</sup>.

<sup>32</sup> Gai honen inguruan, besteen artean honakoak ikus ditzazkegu: ÁLVAREZ GONZÁLEZ, Santiago. *Estudios de Derecho interregional*, Santiago de Compostela, *Conflicto Legum*, 2007, 79-133 orr.; ARCE JANARIZ, Alberto. *Comunidades Autónomas y conflictos de leyes*, Madril, Civitas, 1987, 58- orr.; FONT I SEGURA, Albert. *Actualización y desarrollo del sistema de Derecho Interregional*, Santiago de Compostela, Servizo de Publicacións e Intercambio Científico, 2007, 61-... orr.

<sup>33</sup> Eskualde-arteko Zuzenbidearen beharrezko erreformaz eta esparru horretan lege berezi bat aldarrikatzearen inguruan, besteen artean: BORRÁS RODRÍGUEZ, Alegría. «El derecho interregional: realidades y perspectivas», Florensa i Tomàs, C.E. (Zuzen.) eta Fontanellas Morell, J.M. (Koord.). *La codificación del Derecho civil de Cataluña. Estudios con ocasión del cincuentenario de la Compilación*, Madril, Marcial Pons, 2015, 553-574 orr.

<sup>34</sup> Espainiako ordenamendu juridikoko eskubideen aniztasunari buruz, besteak beste, honako hau ikus daiteke: ARENAS GARCÍA, Rafael. «La pluralidad de Derechos y unidad

Alegia, eskualde-arteko Zuzenbideari buruzko lege berezirik ez badago, gure sistema Kode Zibileko 16.<sup>35</sup> artikuluko horren inguruan oinarritzen da. Artikuluko honen oinarritzko ildoak nazioarteko Zuzenbide pribatuko arauetara jotzeko printzipioaren arabera artikulatzen dira (salbuespen ñabardurekin), eta auzotasun zibila antolamendu zibiletara eta lotura-puntu bakarrera lotzeko irizpide gisa finkatzen du. Ondorioz, auzotasun zibila oinarritzko elementua da eskualde-arteko lege ezberdinen arteko gatazkak konpontzeko, lotura-printzipio orokor gisa eta ordenamendu zibil zehatz bati lotzeko teknika gisa.

Oraindik ere ez dugu aurreikus daitekeen erantzuna ematea ahalbidetzen duen<sup>36</sup> eta, honela, segurtasun juridiko eza eta barne-gatazka arautzaile/eskumenezko horien judizializazioak dakarren ezegonkortasuna saihesten duen benetako eskualde-arteko Zuzenbide-sistematik. Zalantzarik gabe, Europako Estatu Batuen proiektu zaharraren integrazio politikoa, soziala, ekonomikoa eta juridikoa zenbat eta handiagoa izan, ezjakintasuna areagotuko da<sup>37</sup>. Gainera, kontuan hartu behar da aplikagarri den legearen dimentsioa auzitan jartzen duen kasu gatazkatsu baten nazioartekotasun-notak espainiar sistemaren ikuspuntutik barne-aniztasuna ezabatzen ez duela, Espainiako eskubide zibil guztietatik zein aplikatu behar den zehaztea ez baita soilik

---

de jurisdicción en el ordenamiento jurídico español», FONT I SEGURA, A. (Ed.). *La aplicación del Derecho civil catalán en el marco plurilegislativo español y europeo*, Bartzelona, Bosch Atelier, 2011, 51-79 orr.

<sup>35</sup> ZABALO ESCUDERO, M<sup>a</sup> Elena. «Artículo 16.1», ALBALADEJO, S. eta DÍAZ ALABART (Zuzen.). *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales*, 2. ed., Madril, EDERSA, I, 2 bol., 1995, 1265-... orr.

<sup>36</sup> Erreformaren eta eskualde-arteko benetako Zuzenbide-sistemaren erreklamazio inguruan, ikus: GINEBRA MOLLINS, María Esperança. «El veíntage civil: regulació, reforma i alternatives com a punt de connexió», FONT I SEGURA, A. (Ed.), *La inaplicación del derecho civil catalán en el marco plurilegislativo español y europeo*, Bartzelona, Atelier, 31-50 orr.

<sup>37</sup> BELINTXON MARTÍN, Unai. «Dumping social, desarmonización socio-laboral y Derecho internacional privado. La des-unió europea», AEDIPr, XVI, 2016, 611-642 orr.

eskualde-arteko kasuetan planteatzen den kontua, alegia, gero eta maizago nazioarteko edo Europa barruko kasuetan ere ematen ari da<sup>38</sup>.

Izan ere, errealitate hori etorkizuneko azterketa juridikoa ahalbidetzen duen azterketa sakona egitea exijitzen du, barne-gatazken espainiar sistema modu serio eta zehatzean erreformatzeko eta modernizatzeko, Espainiako eskubide pribatuen aniztasuna Europako Zuzenbidean gero eta eragin handiagoarekin uztartu ahal izateko<sup>39</sup>. Gaur egungo konstituzio-esparruan, Estatuari dagokio, ezbairik gabe, legeen arteko gatazkek ebazteko arauak ematea. Hala ere, nahiz eta araugintza-lan hori Estatuako legegileari dagokion, honek jarduteko jarrierarik ez duela izan agerikoa da, edo are larriagoa, eskualdeen arteko Zuzenbideko benetako Espainiako sistema aldatu, egokitu, berritu edo sortzeko interes eza izan du. Horri esker, Autonomia Erkidegoetako legegileek eragin handiagoa izan dute, edo, are gehiago, protagonismo handiagoa izan dute; izan ere, horiek, modu bizi eta progresiboan, beren ordenamendu juridikoak osatu eta gizarte-errealitate aldakor eta konplexu horretara egokitu dituzte (hau da, Autonomia Erkidegoetako eskubide zibilak), beti ere, testuinguruari erantzuten dieten erantzun juridiko-arau-emaileak, aurrekari historikoak eta legegintzakoak, eta horiek aplikatu behar diren garaiko errealitate soziala kontuan hartuz. Horren ondorioz, etengabeko tentsioa sortu da Konstituzioaren printzipioen eta eskubide zibil bereziak aldatu eta garaietara egokitzeko beharraren artean. Egoera hori are konplexuagoa da, Europako legegileak, ordenamendu juridiko bat baino gehiago

<sup>38</sup> Gai horri buruz: FONT I SEGURA, Albert. «La pluralidad interna visita el reino del Derecho internacional privado. Comentario a la Resolución de la Dirección General de Dret i Entitas Jurídiques de 18 de septiembre de 2006», *In Dret*, 2007, 2 zenb., 3-5 orr.

<sup>39</sup> Espainiako eskualdeen arteko Zuzenbide-sistemaren beharrezko arazketari buruz, ikus: Garau Juaneda, Luis. «La necesaria depuración del Derecho interregional español», FONT I SEGURA, A. (Ed.). *La aplicación del derecho civil catalán en el marco plurilegislativo español y europeo*, Barcelona, Atelier, 95-99 orr.

дутен Estatuei dagokienez, gai horri buruzko aurreikuspenak sartu baititu Europako arau askotan.

Azken finean, Atariko Tituluaren IV. kapitulua modernizatu, barne-legeen gatazkei buruzko Lege Berezi bat sortu, edo nazioarteko hitzarmenetan<sup>40</sup> edota Europako araudietan jasotako irtenbideak barne-sisteman eta orokorrean sartzeko beharra aztertu behar da<sup>41</sup>.

#### 4. NAZIOARTEKO HITZARMENEN GATAZKA-SISTEMA. HAINBAT OHAR

Erabilitako igorpen-sistemak edo -ereduak, eta Hayako Hitzarmeneko batzuek eskaintzen dituzten lege anitzeko antolamenduei buruzko irtenbideak aztertzea bereziki garrantzitsua da gure gatazka-sisteman erreferentzia gisa sartu ostean<sup>42</sup>. Soilik gai jakin batzuei buruzko gatazka-arauei irtenbide partziala proiektatu da, eta barne-erreformaren ondoren ez da lege-koherenziaren irizpiderik sortu.

Honela, Hayako Hitzarmenek, arloen arabera, zuzenean edo zeharka lege anitzeko ordenamenduetara igortzeko sistema aukeratu dutela ohar-

<sup>40</sup> Uztailaren 28ko 26/2015 Legeak eraldaturiko 9.4, 9.6 eta 9.7 artikulua ikus itzazu. 9.7 artikuluari dagokionean, lehiari, lege aplikagarriari, ebazpenak onartu eta betearazteari eta elikagaien betebeharen arloko lankidetzari buruzko 4/2009 (EB) Erregelamenduko 15. artikulua kontuan izan behar da.

<sup>41</sup> Adibidez, Erresuma Batua *The Contracts (Applicable Law) Act 1990* 2(3) saila, kontratu-betebeharrei, barne-gatazkei aplikatu beharreko legeari buruzko 1980ko ekainaren 19ko Erromako Hitzarmena hedatuz. Arauaren testua ikusgai: PLENDER, R., WILDERSPIN, M. *The European Contracts Convention. The Rome Convention on the Law Applicable to Contractual Obligations*, 2. ed., Londres, 2001, 251-... orr.

<sup>42</sup> Gai honen inguruan beste autoreen artean: Zabalo Escudero, M<sup>a</sup> Elena, «El sistema español de Derecho interregional», FONT I SEGURA, A. (Ed.). *La aplicación del Derecho civil catalán en el marco plurilegislativo español y europeo*, Bartzelona, Bosch Atelier, 2011, 17-30 orr.



tarazi behar da, eta horrek aukera ematen digu jarraitutako sistema ez uniformetzat jotzeko. Izan ere, hitzarmen ezberdinetan erabiltzen den bidalketa-teknikak, lehen begira batetan, badirudi materia blokeen arteko bereizketa argi eta garbi islatzen dituela. Bereziki, gai hauek arautzen dituzten nazioarteko tresnetarako zuzeneko igorpen-sistema bat erabiltzen dela, hala nola: errepideko zirkulazio-istripuak<sup>43</sup>; produktuen erantzukizuna<sup>44</sup>; bitartekarien eta ordezkariaren kontratuak<sup>45</sup>; trust eta haien onarpena<sup>46</sup>; salgaien nazioarteko salerosketa<sup>47</sup>; haurraren babesa

<sup>43</sup> Errepideko zirkulazio-istripuetan aplikatu beharreko legeri buruzko 1971ko maiatzaren 4ko Hitzarmeneko 12. artikuluan honela dio: *Cualquier unidad territorial que forme parte de un Estado con sistema jurídico no unificado se considerará como un Estado a los efectos de aplicación de los artículos 2 a 11, cuando tenga su propio sistema jurídico en lo relativo a la responsabilidad civil extracontractual en materia de accidentes de circulación por carretera. BOE 264 zenb., 1987ko azaroaren 4a.*

<sup>44</sup> Produktuengatik erantzukizunari aplikatu beharreko legeri buruzko 1973ko urriaren 2ko Hitzarmena. Bere 12. artikulua honela dio: *Cuando un Estado conste de varias unidades territoriales en que cada una tenga sus propias normas legales acerca de la responsabilidad por productos, cada unidad territorial será considerada como un Estado a efectos de la determinación de la legislación aplicable según el Convenio. BOE 21 zenb., 1989ko urtarrilaren 25a.*

<sup>45</sup> Bitartekarien kontratuak eta ordezkariak aplikatu beharreko legeri buruzko 1978ko martxoaren 14ko Hitzarmena. Ikus bedi bere 19. artikulua: *Cuando un Estado comprenda varias unidades territoriales que tengan sus propias normas en materia de contratos de intermediarios y de representación, cada unidad territorial se considerará como un Estado a los fines de la determinación de la ley aplicable según el Convenio.*

<sup>46</sup> Trustari eta haren onarpenari aplikatu beharreko legeri buruzko 1985eko uztailaren 1eko Hitzarmena. Honela dio 23. artikulua: *A los efectos de determinar la ley aplicable según el Convenio, cuando un Estado esté integrado por varias unidades territoriales cada una de las cuales tenga sus propias normas en materia de trust, cualquier remisión a la ley de ese Estado se entenderá hecha a la ley vigente en la unidad territorial de que se trate.*

<sup>47</sup> Salgaien nazioarteko salerosketa-kontratuak aplikatu beharreko legeri buruzko 1986ko abenduaren 22ko Hitzarmeneko 19. artikulua zera dio: *A los efectos de determinar la ley aplicable con arreglo al Convenio, cuando un Estado comprenda diversas unidades territoriales cada una de las cuales tenga su propio sistema jurídico o sus propias normas jurídicas en materia de contratos de compraventa de mercaderías, la referencia a la ley de dicho Estado será considerada como una referencia a la ley que esté en vigor en la unidad territorial correspondiente.*

eta nazioarteko adopzioaren arloko lankidetz<sup>48</sup>; foroa aukeratzeko akordioak<sup>49</sup>; eta bitartekari batean gordetako balioen gaineko eskubideak<sup>50</sup>.

Hala ere, gaiaren inguruko salbuespen nabarmen batzuk ere badaude. Hasteko, 1970eko ekainaren 1eko dibortzioen eta legezko banantzeen onarpenari buruzko Hitzarmena, bere 13. artikuluan honako hau adieraziz: “*En la aplicación del Convenio a los divorcios o separaciones obtenidas o cuyo reconocimiento se solicita en Estados contratantes que tienen en este ámbito dos o más sistemas jurídicos aplicables en diferentes unidades territoriales: 1. toda referencia a la ley del Estado de origen se refiere a la ley del territorio en el que el*

<sup>48</sup> Haurraren babesari eta nazioarteko adopzioaren arloko lankidetzari buruzko 1993ko maiatzaren 29ko Hitzarmena. Bere 36. artikulua haxe dio: *En relación a un Estado que tenga, en materia de adopción, dos o más sistemas jurídicos aplicables en distintas unidades territoriales: a) toda referencia a la residencia habitual en dicho Estado se entenderá referida a la residencia habitual en una unidad territorial de dicho Estado; b) toda referencia a la ley de dicho Estado se entenderá referida a la ley vigente en la correspondiente unidad territorial; c) toda referencia a las autoridades competentes o a las autoridades públicas de dicho Estado se entenderá referida a las autoridades autorizadas para actuar en la correspondiente unidad territorial; d) toda referencia a los organismos acreditados de dicho Estado se entenderá referida a los organismos acreditados en la correspondiente unidad territorial.*

<sup>49</sup> Foroa aukeratzeko akordioei buruzko 2005eko ekainaren 30eko Hitzarmena. 25.1 artikulua: *1. En relación a un Estado contratante en el que dos o más sistemas jurídicos relativos a las cuestiones reguladas en el presente Convenio se aplican en unidades territoriales diferentes: a) cualquier referencia a la ley o al procedimiento de un Estado se interpretará, cuando sea pertinente, como referencia a la ley o al procedimiento en vigor en la unidad territorial pertinente; b) cualquier referencia a la residencia en un Estado se interpretará, cuando sea pertinente, como referencia a la residencia en la unidad territorial pertinente; c) cualquier referencia al tribunal o a los tribunales de un Estado se interpretará, cuando sea pertinente, como referencia al tribunal o a los tribunales en la unidad territorial pertinente; d) cualquier referencia a la conexión con un Estado se interpretará, cuando sea pertinente, como conexión con la unidad territorial pertinente.*

<sup>50</sup> Bitartekari batean gordetako baloreen gaineko eskubide batzuei aplikatu beharreko legeari buruzko 2006ko uztailaren 5eko Hitzarmeneko 12.1 artikulua honela dio: *1. Si el titular de la cuenta y el intermediario relevante han acordado que la ley aplicable sea la ley de una unidad territorial de un Estado con diversas unidades: a) la referencia al “Estado” en la primera frase del artículo 4 (1) es a esa unidad territorial; b) la referencia a “ese Estado” en la segunda frase del artículo 4 (1) es al Estado con diversas unidades en su conjunto.*

*divorcio o la separación de cuerpos se haya obtenido; 2. toda referencia a la ley del Estado de reconocimiento se refiere a la ley del foro; y 3. toda referencia al domicilio o a la residencia en el Estado de origen se refiere al domicilio o a la residencia en el territorio en el que el divorcio o la separación ha sido obtenido”.*

Bestalde, 1978ko martxoaren 14ko ezkontzaren ospakizunari eta aitortpenari buruzko Hitzarmena ere aipa genezake, zehazki, bere 17. artikulua, “*Cuando un Estado comprenda dos o más unidades territoriales en las que se apliquen sistemas jurídicos diferentes en materia de matrimonio, toda referencia al Derecho del Estado de la celebración se entenderá hecha al Derecho de la unidad territorial en la que se celebre o se haya celebrado el matrimonio”.*

Era berean, 1978ko martxoaren 14ko ezkontza-erregimenei aplikatu beharreko legeari buruzko Hitzarmena ere izenda dezakegu, 17. artikuluan honakoa jasotzen baita: “*A los efectos del Convenio, cuando un Estado comprenda dos o más unidades territoriales en las que se apliquen sistemas jurídicos diferentes en materia de regímenes matrimoniales, toda referencia a la residencia habitual en tal Estado se entenderá hecha a la residencia habitual en una unidad territorial de dicho Estado”.*

1980ko urriaren 25eko adingabeen nazio-barruko lapurretaren alderdi zibilei buruzko Hitzarmena, horren beste erakusgarri bat izan zen, 31. artikulua hau azalduz: “*Cuando se trate de un Estado que en materia de custodia de menores tenga dos o más sistema de derecho aplicables en unidades territoriales diferentes: a) toda referencia a la residencia habitual en dicho Estado se interpretara que se refiere a la residencia habitual en una unidad territorial de ese Estado. b) toda referencia a la ley del Estado de residencia habitual se interpretara que se refiere a la ley de la unidad territorial de ese Estado donde resida habitualmente el menor”.*

Eta, azkenik, 2007ko azaroaren 23ko haurren eta familiako beste kide batzuen elikagaiak nazioartean kobratzeari buruzko Hitzarmeneko 46.1. artikulua honela dio: “*Con respecto a un Estado en el que se apliquen en uni-*

*dades territoriales diferentes dos o más sistemas jurídicos o conjuntos de normas, relativos a las materias reguladas en el presente Convenio: a) cualquier referencia a la ley o al procedimiento de un Estado se interpretará, en su caso, como una referencia, a la ley o al procedimiento vigente en la unidad territorial pertinente; b) cualquier referencia a una decisión adoptada, reconocida, reconocida y ejecutada, ejecutada o modificada en ese Estado se interpretará, en su caso, como una referencia a una decisión adoptada, reconocida, reconocida y ejecutada y ejecutada o modificada en la unidad territorial pertinente; c) cualquier referencia a una autoridad judicial o administrativa de ese Estado se interpretará, en su caso, como una referencia a una autoridad judicial o administrativa de la unidad territorial pertinente; d) cualquier referencia a las autoridades competentes, organismos públicos u otros organismos de ese Estado distintos de las Autoridades Centrales, se interpretará, en su caso, como una referencia a las autoridades u organismos autorizados para actuar en la unidad territorial pertinente; e) cualquier referencia a la residencia o residencia habitual en ese Estado se interpretará, en su caso, como una referencia, a la residencia o residencia habitual en la unidad territorial pertinente; f) cualquier referencia a la localización de bienes en ese Estado se interpretará, en su caso, como una referencia a la localización de los bienes en la unidad territorial pertinente; g) cualquier referencia a un acuerdo de reciprocidad en vigor en un Estado se interpretará, en su caso, como una referencia a un acuerdo de reciprocidad en vigor en la unidad territorial pertinente; h) cualquier referencia a la asistencia jurídica gratuita en ese Estado se interpretará, en su caso, como una referencia a la asistencia jurídica gratuita en la unidad territorial pertinente; i) cualquier referencia a un acuerdo en materia de alimentos celebrado en un Estado se interpretará, en su caso, como una referencia a un acuerdo en materia de alimentos celebrado en la unidad territorial pertinente; j) cualquier referencia al cobro de costes por un Estado se interpretará, en su caso, como una referencia al cobro de costes por la unidad territorial pertinente. 2. El presente artículo no será de aplicación a una Organización Regional de Integración Económica”.*

Izan ere, arlo horietan zuzeneko igorpen-sistema bat ere badago, azken finean horrek, aipatutako hitzarmen guztietan erantzun bera ematen ez duen barne-logikari eusteko nolabaiteko desorientazioa sumatzeko aukera ematen du. Igorpen-eredu horretan, gatazka-arauak zuzenean egiten dio erreferentzia lurralde-Zuzenbideari, eta aplikatu behar den eta Estatuak eta lurralde-unitateak parekatzen dituen legezko fikzio batean oinarrituta dagoen lege anitzeko ordenamenduaren eskualde-arteko Zuzenbide-sisteman alde aurretik eskala egitea sailhestuz<sup>51</sup>.

Hasiera batetan, bazirudien igorpen-sistemen artean banaketa edo be-reizketa bat zegoela, tratatutako gai-multzoen arabera edo gaiaren arabera (hau da, Zuzenbide zibileko eta merkataritza-Zuzenbideko gai zehatzak zuzeneko igorpen-sistema jasotzen dituzten lehen Hitzarmen multzoa; eta familia-zuzenbidea, ezkontza-krisiak, ondorengotza, gurasoen erantzukizuna, elikadura-betebeharrak, adingabearen adopzioa eta babesa barne hartzen dituzten bigarren Hitzarmen multzoa), eta, hala ere, adibideen arabera, egiaztatu ahal izan dugu errealtatean honako hau ez dela existitzen.

